

Amara berri

Emakumeen afaria

Datozen egunotan Ikasbide kultur elkarteak hainbat afari antolatu ditu. Martxoaren 3an, larunbata, barrikotea egingo dute. Bestalde, emakumearen eguna dela eta, hilaren 8an egitekoa den afarirako gonbita luzatu dute elkarteak kideek.

Oihana Prado 943-457695

Esan bezala, martxoaren 3an barrikotea izango da Ikasbide kultur elkartearen, arratsaldeko 20.30etatik aurrera. Bertaratzten direnek sabela ondo betetzeko parada izango dute. Bakailao tortilarekin hasiko dira afaltzen eta jarraian, elkartearen bertan prestatutako azpizuna izango dute dastagai. Intxaurrek eta gazta izango dira postrerako. Ondoren, eta nahi duenarentzat, noski, kafea, kopa eta puroa egongo dira. Afariaren truke 2.500 pezeta ordaindu

beharko dira.

Bestalde, hilaren 8an, Emakumearen Eguna dela eta, Ikasbide kultur elkarteak kideek beste afari bat antolatu dute. Azken horretara jo nahi dutenek argi ibili beharra dute, izena emateko azken eguna hilaren 2a baita. Afarian parte hartu nahi izanez gero, elkartetik pasa zaitezke edo 943-457107 telefono zenbakira dei dezakezu (arratsaldeko 17.30etatik 21.00etara).



Emakumearen Egunean afaria egingo da Ikasbide elkartearen.

Altza

Piñata igandea

Hilaren 3an Piñata igandea egingo da auzoan. Urtero bezala, auzoko kaleetan Altza eta inguruetako konpartsak ibiliko dira.

Larraitz Garmendia 943-391267

Aurten 13 taldek parte hartuko dute desfilean. Horrez gain, ohi denez, Errenteria, Donostia zein Trintxerpeko gazte asko auzoratuko zaizkigu.

Larunbatean, igandeko desfilean parte hartuko duten konpartsen aurkezpena egingo da Rotetan. Ondoren, dantzaldia egingo da.

Igandean, bestalde, 12.00etan hasiko da desfilea, Lau Hartzetako zubian. Bertatik Txapinera abiatuko dira konpartsa kideak eta Altza hiribidetik igaro ondoren, Arria parke-raino iritsiko dira. Bertan amaituko da desfilea.

Desfilean parte hartuko duten taldeetatik lau altzatarrak dira. Gurea konpartsa da an-



Igandean jende asko ibiliko da Altzako kaleetan.

tolatzailea, eta aurten taldeko kideak Zamundako Printzeaz mozarrotuko dira. Bestalde, Santa Barbara konpartsa kideak "Galaxien guda" filmean oinarritu dira mozarrotzeko. Trumoiak taldea, azkenik, aurten lehen aldiz aterako da. Bertako kideek naturaren oinarritzko elementuak izango dituzte hizpide.



Gizarte, Kultura, Teknika eta Zientziari
Buruzko V. jardunaldiak




Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskaraz, Gazteria eta Kirola departamentua

**ZIENTZIA, GIZAKIAK
ETA
ABEREAK**


KOLDO MITXELENA Kulturunea
Areto Nagusia

2001eko martxoaren 5etik 7ra.

TALO



OKINDEGIA



EGUNEROKO OGIA
Zarategi pasealekua 73
intxaurrenondo
Tel.: 943 27 42 20